

SISIFO

MAITE MINEZ

LAURA MINTEGI
TXALAPARTA

Ikaslea: K. P.
2002-2003

AURKIBIDEA

LAURA MINTEGI	1
SARRERA	1

SISIFO MAITE MINEZ

• KOKAPENA	2
• GAIA	2
• EGITURAKETA.....	2
• BALIABIDEAK.....	3
• IRITZIA.....	5

BIBLIOGRAFIA	11
---------------------------	----

LAURA MINTEGI

1955eko urriaren 26an Lizarran jaiotako Laura Mintegi Lakarra dugu *Sisifo maite minez* izenburutzat daraman obra honen sortzailea. Egun Algortan bizi da.

Hamazazpi urte zituela ikasi zuen euskara, Bilbon alegia, eta geroago Historia lizentziatura egin zuen Deustuko Unibertsitatean (1978) eta Psikologia doktoretza burutu Euskal Herriko Unibertsitatean (1999). Emakume honek hainbat lanetan parte hartu izan du, hala nola, hitzaldi, mahai-inguru eta kongresuetan, aldizkari egunkari eta irrati ugaritan kolaboratzearekin batera.

1983an *Ilusioaren ordaina* izenburupeko narrazio laburrak argitaratu zituen eta, geroztik, *Bai...baina ez* (1986), *Legez kanpo* (1991) eta *Nerea eta biok* (Txalaparta, 1994) eleberriak plazaratu ditu. Bi saiakera eta hainbat liburu-atalen egilea ere badela esan beharra dago, eta honetaz gain, Donostiako hiria ipuin lehiaketa eta Azkue zein Jon Mirande nobela sariak jaso ditu.

SARRERA

Sisifo maite minez izeneko obra honek hiru argitaraldi izan ditu Txalaparta argitaletxearen eskutik 2001eko otsaila eta 2002ko otsaila bitartean.

Liburu honetan kontatutako istorioaren bidez, Laura Mintegik gure bizitzan modu batean edo bestean presente dagoen maitasunaren ikuspegi ezberdin bat azaltzen digu, ulertzeko era ezberdin bat alegia. Honetarako Ane izeneko emakume bat aukeratu du protagonistatzat, behin honen bizipenen inguruan kokaturik gaudela, maitasuna benetan zer ote den pertzepzio hau garatzeari ekingo dio. Ane, minduta, bakarrik, zer egin gabe jakin gabe bizi den emakumea dugu, bai bihotzean eta bai buruan sentimendu gehiegi nahaspilatuta dituen emakumea, alegia. Hori dela eta, psikoanalista batengana joko du laguntza eske, eta honekin barnean dituen beldur eta gogoeta denak azaleratzeko ausardia eskuratuko du. Istorioa, beraz, psikoanalistarekin izandako saioen inguruan kokatuko da, honek Aneren iraganean eta sentimenduetan barrena murgilduko gaituelarik. Emakume ezkondua (eta bi alabaduna) bada ere, Aneren bizitza ez da egonkorra, bere barnean bizipen eta sekretu bat baino gehiago ezkututzen dituelako, hauek bere bizitza hankaz gora jartzen ari direlarik (eta jarri izan dutelarik). Hain zuzen ere, bere lagun mina den Karmelerekin batera, arazo hauei konponbidea aurkitzen saiatu beharko du Anek, honek bere pentsamendu itxi eta ezkutuetan sartzeko aukera emango digularik.

SISIFO MAITE MINEZ

KOKAPENA

Obra honen denborazko kokapenari dagokionez ez zaigu datu zehatzik ematen, baina badakigu orainaldiko gertakizunak Bilbon koka ditzakegula behintzat. Orainaldi horretan Anek, gure protagonistak, aldaketa bortitz bat bizi du: bere familia utzirik sei urtez beste gizon batekin egon ondoren, etxera itzultzea erabaki du, eta hau ez zaio hasiera batean erraza egingo. Atzean, baztertua zuen bizimodura itzultzea eta honetara ohitzea, ordea, ez da Aneren arazorik larriena. Anek kezka, bizipen, beldur ezkutu eta sekretu garrantzitsu bat baino gehiago dauzka buruan jirabiraka, eta horiek psikoanalista baten laguntzaz kanpora ateratzean, bere bizipen eta gogoetetan murgilduko gaitu istorioak, eta horrela bai denboran bai leku desberdinetan zehar bidaiatzeko aukera emango digu.

GAIA

Maitasuna esango nuke dela obra honen gaia; maitasuna ulertu eta aurkitzeko beharra, maitasunaren amaiera eta heriotza, Anek (protagonistak) maitasunaren inguruan ulertu eta eskuratu nahi baina ezin duen guztia aipatzen baita.

Azkenean, Aneren arazoan erroa bertan ez badago ere, hauxe da beti, alde batera utzi gabe, presente agertzen zaigun ideia edo gaia, maitasuna, alegia. Gainera, izenburuak berak (*Sisifo maite minez*) honi egiten dio erreferentzia, halaxe definitzen baitu obra honek maitasuna: Sisiforen istorioa eredutzat harturik, maitasuna bizitzak ezarritako “zigor” baten moduan ulertu behar dugu, erremediorik gabe bizitzea egokitu zaiguna eta beti bukatzen dela jakin arren, behin eta berriz hasten eta errepikatzen duguna, berau bizitzeak dakartzan minak, tristura eta nahigabeak zamatzat hartuz.

EGITURAKETA

Obra honetan kontatzen diren Aneren bizipen guztiak erlazionatzeko, idazlea orainaldian gertatzen ari denaz baliatzen da, hau da, Anek psikoanalistarenean izandako saioetan hain zuzen. Hori dela eta, jardunaldi hauek (hizketaldiak) istorio honen garai ezberdinetako pasarte guztiak lotzen dituzten armiarma sarea balira bezala jokatzeko dute, izan ere hauei esker azaleratzen ditu protagonistak bere bizipen gogoeta eta beldur guztiak.

Beraz, eta aurrerago esan bezala, narrazioak Aneren pentsamenduetan eta iraganean etengabe murgiltzen gaitu, eleberrigintza modernoan sarri

erabilia den *flash-back* delako teknikaren bidez, denboran atzera saltoak ematen dituelarik.

Ondorioz, esan dezakegu obra honen narrazioa ez dela lineala modu zorrotz batean, baina beti ere gertakizunen ordena eta koherentzia mantentzen duela aipaturiko hari edo abiapuntu bati loturik.

BALIABIDEAK

Aurrez azaletik behintzat aipatu bezala, obra honekin eleberrigintza modernoaren aurrean kokatzen gara eta, ondorioz, kontuan hartzekoak dira literatur genero honi dagozkion ezaugarriak nahiz metodoen erabilera.

Lehendabizi, kontaketa era landua dela esan beharko genuke. Sarritan esaldi zuzen, labur edo aditzik gabekoez baliatzen bada ere, idazleak beti topatzen du hauek beste baliabide batzuen bidez aberasteko eta beraien arteko lotura finkatzeko modua. Honela, gramatikaren aldetik konplexutasun handirik topatzen ez badugu ere, ugaria da izenondoaren erabilera nahiz hizkuntz baliabideena beranduago azalduko dudan moduan.

Narratzaileari dagokionez, istorio hauetan narratzaile bat baino gehiagoren ahotsak aurki ditzakegu. Alde batetik, hirugarren pertsonan mintzatzen den narratzaile orojakile bat daukagu, pertsonaiei buruz jakin beharreko guztiaren berri duena eta, bestetik, Ane eta zenbaitetan baita bere lagun Karmeleren ahotsak dira istorioa kontatzen dutenak. Lehenengoa, bereziki psikoanalistaren kontsultan dagoenean agertzen da, eta bigarrena, baita, Esteban psikoanalistarekin hizketan aritzen denean. Une hauetan, noski, narratzailea lehenengo pertsonakoa bihurtzen da eta pertsonai bakoitzak gertaerak bere ikuspuntutik kontatzen ditu.

Eleberrigintza modernoaren beste ezaugarri bat litzateke, ugaria ez bada ere, beste hizkuntzetatik hartutako maileguz erabilera. Liburu honetan baten batzuk topa ditzakegu:

«Besteak astebeteko *flash* distiratsuak baino ez ziren...» (39. or.)

«Datorren asterako *rendez-vous* baterako... » (62. or.)

«... *goretex*-ez egindako txerto berriak... » (104. or.)

«... *contradictio in terminis* adituen ustez. » (163. or.)

Espresaerei dagokienez hiruren erabilera da aipatzeko modukoa, baina batez ere narrazioa da beste bien gainetik nagusitzen dena:

- NARRAZIOA:

«Ane ingurura begiratzan hasi zen. Laguntza behar zuen. Ez zekien zer egin, nori deitu, nondik hasi. Umeak zaintzen ari ziren emakume gazteek ez zioten laguntzarik emango; poliziari ezin zioten deitu, eta, gainera, zer esateko? Ahizpa hil zorian zegoela bere erruz? Ez. Beste zerbait pentsatu behar zuen. Zerbait pentsatu, arin, laguntza lortu, norbait ekarri. Txute ! Txutek jakingo zuen zer egin ! Korrika atera zen noizbait mini-zooa izandako hartatik, eta Txuteren bila abiatu zen. Nora baina? Ez zekien nondik hasi.» (174. or.)

«Buruja jaitsi du, Anek. Keinuaz adierazten du Esteban bete-betean jotzen ari dela eta beldurraren arrazoia ez dagoela Anek aipatzen dituenen; beste nonbait bilatu behar dela une hartan etxera ez bueltatzeko arrazoia.» (117. or.)

- DESKRIBAPENA :

«Begirada galdurik, giharrak mugitzeke, hankak gurutzaturik, koadro honetan zigarrokinaren keak eta jaustear dagoen errautsak bakarrik dute mugimendua. Esteban Mugarrak idazteari utzi dio. Belaunen gainean duen koaderno itxi eta azalean ANE idatzirik duela ikus daiteke. Buru-gaixoez ez egi dute deiturarik. Koaderno zabaldu eta lehen orrian, ordea, Ane Atela Lasa irakur daiteke, eta artxiborako erreferentzia- zenbaki bat.» (10. or.)

«Maitasuna eskale bat baino gosetiagoa da, asegaitez, berekoi, muturretan jarduten duena: zoriona eta zorigaitza dakartza, jakinduria eta enorantzian oinarritzen da, eskuzabaltasuna eta zekenkeria ezagutze ditu. Oreka zer den ez daki. Minaren eta pozaren arteko nahasketa bitxia da, eta nahasketa hori sortzailea eta emankorra izan daiteke batzuetan, eta suntsitzailea ere beste une askotan.» (29. or.)

- ELKARRIZKETA: ZUZENA

«—Ez nizuke galdetu behar, eta nahi baduzu, ez erantzun; baina jakin nahi nuke, Ane, benetan, gizon hark horrenbeste merezi al zuen?

—Nola erantzun horri? Galdera ez da ea gizon batek merezi duen. Seguruena ez. Ziur asko batek ere ez du gauza handirik merezi.

—Orduan? Orduan, zergatik, Ane? Ez dut ulertzen!

—Maitasunak merezi du. Halako erabakia ez da hartzen gizon bategatik, maitasunagatik baizik.

—Maitasuna nori? Zeri?

—Maitasuna maitatzeari berari.» (39. or.)

- ELKARRIZKETA : ZEHARKAKOA

«Mikelek esaten zion norberaren inplikazioa zela, eskatu inork ez ziola eskatzen, baina egoera ikusita... ez zuela beste irtenbiderik ikusten, pertsona haiei lagundu beharra zuela. Teknikoki bera zela prestatuena formakuntza-gelan, eta hala ere formazio-falta sumatzen zuela. Ez zitzaioa gaizki etorriko

gaian adituagoengandik prestaketa berezia jasotzea, eta adituenak Estatu Batuetan eta Suedian zeudela.» (49. or.)

Espresaerez gain, aurrez esan bezala aipatzekoa da hizkuntz baliabideen erabilera ugaria, batez ere metaforarena. Hauek narrazioa ederrago bihurtzearekin batera, aberastasuna eta kutsu landua eskaintzen diote kontaketa honi:

- METAFORAK:

«... (maitasuna da) estreinako presioa bularrean, eztarria ihartuta eta taupaka sentitzea; begirada galdua puntu batean tinkotzea; norberaren bizitza hiru lerroko poema batek islatzen duela ikustea; bizirik zaudela jakin eta bizi nahi ez izatea» (9. or.)

«Osatu gabeko puzzlea da oraindik.» (Ane) (11. or.)

«Maitasuna minaren eta pozaren arteko nahasketa bitxia da.» (29. or.)

«Isiluneak batailaren aurreko bakealdi fiktizioak izaten ziren.» (37. or.)

«Isilunea bizitza komuna eraikitzeke modua zen.» (37. or.)

«Gu ginen ardatza, zilborra; denak jirutzen zuen gure inguruan.» (47. or.)

«Pasioa gabezia da, inoiz bete ezinezko putzu beltza.» (72. or.)

- PERTSONIFIKAZIOAK:

«Maitasunak ez du zertan beti gose izan beharrik.» (72. or.)

«Maitasunak eskuzabaltasuna eta zekenkeria ezagutzen ditu.» (29. or.)

«Maitasunak hil egin ninduen.» (10. or.)

- KONPARAZIOAK:

«Denboran atzera ari da, azago, neurtzen ari balitz bezala aurreko eta ondorengoaren arteko marra nola sartu zitzaion.» (9 -10. or.)

«...sekretu horrek erremina ematen diolako, zabalik dagoen zaurian ozpina isurtzeak erremintzen duen bezala.» (85. or.)

«San Francisco-ko bizitza aldapatsua egiten hasi zitzaion Aneri, bertako kaleak bezainbestekoa.» (134. or.)

«(maitasuna) Itsatsirik dago gizakiari, harri Sisifori itsatsi zioten bezala, ...»(169. or.)

IRITZIA

Obra honen inguruan iritzi orokor bat eman behar banu gustuko izan dudala esango nuke; bizitzaren eta honen arlo ezberdinen inguruko interpretazio oso interesgarriak egiten ditu eta horrek irakurlea erreflexionatzera bultzatzen du. Aspektu honek lan hau oso baliagarria bihurtzen duela esango nuke. Dena den, nik zenbait pasarte aukeratu ditut bereziki komentatzeko; ondorengo hauek dira:

1. PASARTEA:

«Maitasuna zer ote den jakin nahi duzue? Nik esango dizut zer den: estreinako presioa bularrean, eztarria ihartuta eta bihotza taupaka sentitzea; begirada galdua puntu batean tinkotzea; norberaren bizitza hiru lerroko poema batek islatzen duela ikustea; bizirik zaudela jakin eta bizi nahi ez izatea; barne-mina, hainbestearinoko mina izan zitekeenik ere sumatuko ez zenuela. Maitasuna malenkonia da, tristezia eta algara batera, pasioa, ziurtasun-eza, sugarra, karentzia eta soberakina; inoiz baino niago izan eta aldi berean norberarekiko buruarekiko arrotza sentitzea. Maitasunak aurreko bat eta ondorengo bat ezarri zuen nire bizitzan.» (9. or.)

Obraren lehenengo paragrafoa da hau, eta bereziki hautatu dut eleberri bati hasiera emateko modu paregabea iruditu zaidalako. Maitasuna deskribatzeko modu eder eta landuagorik ez dut inoiz ikusi. Hori da nire iritzi pasarte honen ezaugarri nabarmenena: edertasuna. Harrigarria da benetan maitasunak har dezakeen handitasunaren deskribapen bat paperean idatzirik ikustea. Egun, filmetan, kalean, etab. sarri entzun daitezke “maite zaitut” hitz magikoak, baina jendeak geroz eta erraztasun gehiagoz esaten ditu, ez direlako benetan ohartzen bi hitz soil horiek barnean daramaten handitasun guztiaz; ez baitituzte benetan sentitzen; ez baitute benetako maitasuna ezagutzen. Mingarria izan ala ez izan, niretzat zorionekoa da esaldi hauetan esaten dena sentitzera hel daitekeena, izan ere, geroz eta sentiberatasun gutxiago ikusten da gure gizartean. Nik ez dut uste momentuz maila horretako sentimendurik izan dudarik, baina benetan pozik sentituko nintzateke azken esaldi hori esateko arrazoiak izango banitu: “maitasunak aurreko bat eta ondorengo bat ezarri zuen nire bizitzan”. Imajinatzen dut adinarekin, heldutasunarekin, ailegatuko zaidala, baina benetan tristea irudituko litzaidake bizitza osoa benetako maitasuna zer den ezagutu gabe igarotzen uztea.

2. PASARTEA:

«Egunean zehar egiten genuena elkarri kontatu eta gero, iluntze haietako gozoena isiltasun konpartitua izaten zen. Ezer esan ez arren, bion isilunea zela jakin bagenekien. Gure denbora zen, laztanek eta amodiozko hitzek bezainbeste esaten zigun isiluneak. Jonekin ez nuen inoiz halakorik sentitu. Jon eta biok isilik egoten ginenean, bera bere isiltasunean bizi zen eta ni neurean. Isiltasun hark banatu egiten gintuen bata bestearengandik. Mikel eta bion artekoak, ordea, batu egiten gintuen.» (37. or.)

Isiltasuna oso baliagarria da. Isiltasunik gabe ezin biziko ginateke, edo hori uste dut nik behintzat; horregatik, duen balioaz jabetzen saiatu behar dugu. Jende askok ez du isiltasuna apreziatzen, ez da bere esanahiaz ohartu ere egiten. “Keinu batek mila hitzek baino gehiago esaten dutela” esan ohi da, eta nire ustez egia biribila da hori. Hitzak maiz soberan egoten dira. Gauza bakoitzak bere momentua dauka, eta isiltasunaren momentuez ere ohartzen saiatu behar dugu. Ez al da ederra pasarte honek deskribatzen duen egoera? Lasaitasuna eta hitzen beharrik ez bata bestearengandik sentitzen duena ezagutzeko. Nire ustez oso ederra da. Arazoa zera da, bizi dugun gizarteak sarritan ia ezinezkoa bihurtzen duela lasaitasun eta isiltasun hau. Hori dela eta, eta arrazoi gehiagoz, ez dugu mespretxatu behar; ikusten eta errespetatzen saiatu baino ez dugu egin behar. Hori da gakoa, isiltasuna errespetatu behar dugu.

3. PASARTEA:

«Beti pentsatu izan dut begiraden kadentzia eta eskuen mugimendua puntu bateraino ikasiak izan daitezkeela, begien eta eskuen bidez mezu ez-mintzatuak igortzen ikasten dugula; baina ez dago ibilera disimulatzerik; nolako ibilera halako izaera adierazten dugu; zer-nolako jarrera dugun bizitzarekiko, nola abiatzen garen munduan barna. Ibiltzeko moduak, zalantzarik gabe, munduarekiko nolako irudia dugun islatzen du.» (63-64. or.)

Pasarte hau aukeratu dut guztiz bat natorrelako esaten duenarekin; are gehiago, nik beti pentsatu eta esan izan dut hori, eta gehienetan norbait izan dut alboan erantzunez “ezin dela pertsona bat bere kanpoko itxuragatik ezagutu”, “ez duela zerikusirik pertsonaren izaerarekin”, etab. Noski, ibilerak asko esaten du norberaren jokatzeko eraz. Nik, onartzea gaizki baldin badago ere, erraztasuna dut jendea gehiegi tratatu gabe ezagutzeko, eta benetan, orain arte ez dit inoiz hutsik egin: ibilera soilik gustuko izan ez dudanean, ez dut pertsona bera gustuko izan ezagutzera ailegatu naizenean. Benetan, begirada bat den moduan, ibilera gure izaeraren ispilua izatera hel daiteke, eta tamalgarria da besteen aurrean itxurak egin nahian dabilzanen ibilerak ikustea, adibidez, edo zure albotik pasatu eta zu baino gehiago dela uste duenarena. Arreta gehiago jarri beharko genioke ibiltzeko erari, asko esan eta ikasi baitaiteke beraren bitartez.

4. PASARTEA:

«Egia da ez dagoela norberaren esku pertsona bat hala bestea maitatzea, sentimenduak ezin kontrola daitezkeela arrazoiak, baina egia da, bestalde, maitasuna ez dela amaitzen edonola, edonoiz, norberak amaitutzat ematen duen momentuan baizik. Gerrillariak ez al dute esaten galtzen den gerra bakarria galdutzat ematen dena dela? Maitasunean gauza bera gertatzen da: amaitzen den maitasuna amaitutzat ematen dena da. Bestera esateko, borondate-kontua da maitasun bati azken arnasa ematea.» (79. or.)

Pasarte hau aukeratu dut interesgarria iruditu zaidalako eta nolabait esaten duenaz konbentzitu naudelako. Baina egia esan behar badut, ez dut neure burua honi buruz iritzi sendo bat izateko ez heldutasun ez esperientzia nahikoaz ikusten. Maitasunaren mundua konplexua da, edo agian guk dena baino konplexuagoa egiten dugu. Argi dagoena zera da, ez dagoela gure eskuetan maitatu behar dugun pertsona arrazonamenduz hautatzea. Hala balitz, zeinen erraza izango litzatekeen dena! Baina bai agian, eta hauxe da pasarteak ikusarazi didana, maitasunari amaiera ematen ala ez "laguntzea". Pertsona batekin ezer egiterik ez dagoenean ez dago beste erremediorik, baina puntu horretara ailegatu aurretik ezin dugu ahaztu harreman bat biren kontua dela, eta irautea nahi baldin badugu, jaso nahi duguna beste edo gehiago emateko prest egon behar dugula. Azkeneko gauza berekoia izatea da, eta hori zaila da, berekoikeria erraztasun osoz garatzen baitu jendeak.

5. PASARTEA:

«Ez, estatistikek esaten dute gizonak emakumeek baino naturaltasun handiagoz kontatzen dituztela bikotetik kanpoko harremanak, sozialki ongi ikusita daudelako, batez ere. Esperientzia puntuagarria da gizonentzat. Baina estatistikek ez dute esaten zenbateraino emakumeek isiltzen dituzten harreman ez-ofizialak, emagaldutzat hartuak ez izateko. Beraien kasuan ez dago ongi ikusita ezkontzatik kanpoko harremana.» (127-128. or.)

Testuan honi erantzunez esaten den moduan "Baliteke", edo hobeto esanda, ziurrenik bai. Tristeia bada ere, horrelako gauzetan irteten da lehorrera erdi-ezkutuan bizi, baina oraindik gure artean bizi den matxismoa. Ez da gauza bera emakume bat hamar gizonekin izan dela esatea edo gizon bat hamar emakumerekin izan dela esatea. Ziurrenik, gizon hori emakume guztiek kritikatuko lukete; emakumea, ordea, bai gainontzeko emakumezkoek bai gizonetzkoek begi txarrez ikusiko lukete, bere burua saldu izan balu bezala, emagaldua balitz bezala. Hala da errealitatea; ez da bidezkoa, baina errealitatea da. Azken finean helburua berdintasunera heltzea izango litzateke, harreman ofizialak onartuz nahiz ez onartuz, baina beti berdintasunaren azpitik. Bestalde, harreman ez-ofizialei buruz ez nuke jakingo zer esan. Nik ez ditut inoiz onartu, baina ez dut uste hitzik dudarik arlo honetan helduen munduan, liburu honek adin batera heldu ondorengo maitasun-harremanak oso era korapilatsuan aurkezten baititu.

6. PASARTEA:

«—Ez nizuke galdetu behar, eta nahi baduzu ez erantzun; baina jakin nahi nuke Ane, benetan, gizon hark, horrenbeste merezi al zuen?

—Nola erantzun horri? Galdera ez da ea gizon batek merezi duen. Seguruena ez. Ziur asko batek ere ez du gauza handirik merezi.

—Orduan? Orduan, zergatik, Ane? Ez dut Ulertzen!

—Maitasunak merezi du. Halako erabakia ez da hartzen gizon bategatik, maitasunagatik baizik.

—Maitasuna nori? Zeri?

—Maitasuna maitatzeari berari.

—Esteban Mugarrak ulertuko dizu, maitea, baina nik ez dizut piperrik ere ulertzen.

—Edo inoiz ez duzu maitatu izan.» (39. or.)

Krudela iruditzen zait pasarte hau, neurri batean behintzat; edo burua hausten duten horietakoa. Benetan horrela al da? Maitasuna bera da bilatzen dugun gauza bakarra? Orduan, testuaren arabera maitasuna eskaini diezagukeen edonor da gure nahi hori asetzeko gai. Baina horrela baldin bada, zer dela eta hainbeste buruhauste gure bizitzako pertsona aurkitzeagatik? Gure “laranja-erdia” nor den jakiteagatik? Nondik sartu dira kontu guzti horiek? Horregatik guztiagatik ez nator guztiz bat pasarte honek esaten duenarekin. Benetako maitasuna pertsona aproposarekin soilik aurkituko dugu, eta pertsona hori ezagutu ezean ez da maitasunik egongo. Beraz, nola izan daiteke maitasuna pertsonaren aurretik jartzea? Karmelek Aneri testuan esaten dion moduan, ez dut honen zentzua guztiz ulertzen. Gauza bat argi dago, ordea, pasarte honek erreflexionatzeko aukera eman diezagukeela.

7. PASARTEA:

«Iragana. Iragana, jakina. Beti da iragana. Psikoanalisia ez litzateke existituko iragana existitu ezean. Etorkizunak ez du traumarik sortzen; ezagutzen ez dugunak ez du arbuiorik eragiten, baizik eta iraganean bizi izandako zerbait ekartzea; datorrenari baino, honen gogoramenari diogu beldurra. Arazoa iraganean dago, eta iragana (hori da beraren fatalitatea) aldaezina da. Ez dago berriz bizitzerik behin bizi izan ez dena. Naturak nekez ematen du bigarren aukerarik.» (118. or.)

Neurri batean egia da esaten dena, baina beste ikuspuntu batetik begiratu daiteke. Garai bakoitzari dagokion garrantzia eman behar zaio, ez gehiagorik ez gutxiagorik. Honek zera esan nahi du, ez dugu iraganean bizi behar, eta are gutxiago ez dugu iraganaren erruz inongo traumarik sufritu behar. Indartsuak eta azkarrak izan behar dugu honen aurrean, iraganean egindakoari aurre egin, bertatik ikasi eta atzean utzi; ez ahaztu, soilik atzean utzi eta ikasitakoarekin orainean zentratu. Etorkizuna, bestalde, ez dugu alde batera utzi behar “etorri beharrekoa etorriko den” aitzakiaz. Iraganetik hasi, oraina bizi eta etorkizunerako prestatu behar dugu, neurri oso handi batean gure eskuetan baitago etorkizunak dakarrena. Zerbait onuragarria espero

badugu, lan dezagun momentu hauetatik aurrera. Izan ere, iraganarekiko beldurak edo honek sorturiko traumak baino, argi dagoena zera da, bizitzak ez duela ezer oparitzen.

8. PASARTEA:

«Zuk, Esteban, zuk jakin behar duzu zertaz ari naizen. Zuk badakizu maitasunak nola jotzen gaituen. Esaidazu, zergatik? Zergatik maitemintzen gara horrela? Zerk eragiten du zoramena, gainezkadura kontrolaezina? Zergatik hiltzen da sentimendu intentsu hori sortu, irauli eta gero, zerk bultzatuta, nondik sortua, nola itzaltzen da? Tragedia grekoa bezalakoa da maitasuna, latza, absurdua. Ziklikoa dela jakin arren, behin eta berriz sentitzera kondenaturik gaude, mundua mundu denetik, eta amaituko den arte.» (168. or.)

Zaila, erantzuteko benetan galdera zaila. Zergatik maitemintzen ote garen. Baina pentsatzekotan, hala da: zerk eragiten digu garen modukoak izatea? Nola sentitu dezakegu hain handia den zerbait, horrela, bat batean, zabaldu egiten den lorea bezala? Zenbateraino sentitu dezakegun pentsatzeak beldurra ere sortzera eraman gaitzake. Bestalde, horrela da; eta zorionez (testu honetan ikuspegi hori azaltzen ez bada ere) denak erortzen gara maitasunaren besoetan, lehenago edo beranduago. Beraz, zergatik ukatu? Agian gizakion beharizan bat gehiago da, jatea edo lo egitea den modukoa. Soilik handiagoa, indartsuagoa dela. Eta nire ustez handitasun eta indar horiek, sarritan ekar dezaketen nahigabearekin batera, dira gizakion “beharizan” hau besteen gainetik ederrena bihurtzen dutena. Maitatzen badugu, azken finean, bizitzen dugu benetako bizitza.

9. PASARTEA:

«Maitalea eta emaztea, hori bikotea; emakume desiratu da bata, eta emakume poseitua bestea. Lehenaren ezaugarria ausentzia da eta bigarrenarena presentzia; ausentzia desiratzen da; daukaguna, ordea, ez dugu jotzen faltan.» (72-73. or.)

Oraingoan pasarte labur hau soilik hautatu dut daraman mezua gehiegi luzatu gabe komentatzeko. Zer dela eta joera hori? Ez duguna desiratu daukagunarekin konformatu gabe? Gauza bat da daukaguna gustukoa ez izatea eta aldaketa bat bilatzea; beste gauza bat, ordea, beti albokoarena edo gure eskuetatik kanpo dagoena nahi izatea. Eta zergatik ez daukagunarekin zoriontsu bizi inoiz lortuko ez dugunarekin amets egiten bizitzea baino? Inozokeria hutsa iruditzen zait. Anbizioa. Benetan balio duten gauza txikiekin gustura egoten ikasi behar dugu, bestela, ez dugu izango bizitzan nora joanik.

10. PASARTEA:

«Sisifo menditik harria hartzera jaisten da, eta harria ez zaio zigorra iruditzen beraren bila doan bakoitzean. Harriaren bila joateak bizirik dagoela erakusten dio Sisifori, arima duelako zantzua da, hain zuzen. Bila doakion bakoitzean, erabakimena Sisiforena da, ez da jainkoena.» (181. or.)

Paragrafo honetan, azken batean, obra honek bere osotasunean igorri nahi duen mezua laburbiltzen da. Sisiforen lekuan geure burua jarri eta harria, igo beharreko malda barne, maitasunagatik eta honek dakartzan egoera zailengatik ordezkatu baino ez dugu egin behar. Egoera zailak izango dira agian, bai, baina horiek mantenduko gaituzte bizirik; horiek bultzatuko gaituzte beti gure xedea lortzera. Horrela, eta ez beste edonola, izango dugu bizitzen jarraitzeko ilusioa.

BIBLIOGRAFIA:

- *Sisifo maite minez*, Laura mintegi.
Txalaparta.